



MAHAI BASKULATZAILEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza proba?

Miaketaren hasieran, tentsio arterialeko hargune bat egiten da, pazientea etzanda dagoela, eta, ondoren, beste tentsio-hargune bat egiten da jarrera tentean.

Ondoren, elektrokardiograma bat erabiliz monitorizatu eta masajea emango dizute lepoan. Ondoren, ohatila 60 graduko inklinazioan jarriko da, eta horrela egongo zara 20 minutuz. Zorabiatu ez bazara, esprai bat emango dizute mingainaren azpian, eta 15 minutu itxarongo duzu, gehienez. Probaren helburua zorabioa erreproduzitzea da, eta horrela, une horretan, elektrokardiograma eta tentsio arteriala behatuko dizute.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Medikazio antikoagulatzailea hartzen baduzu (Sintrom®, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban), medikazio hori nola eman berariaz adieraziko dizute.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir®, degludek, glargina), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, proba egitean kendu beharko duzu.

Oso komenigarria da probaren egunean senitarteko edo lagun batekin joatea.

Non egingo didate proba?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.

Nola egingo didate proba?

Ohatilan etzango zaituzte, gorputza gerritik gora agerian duzula, eta elektrodoak jarriko zaizkizu azterketa osoan zehar EKG ikusteko, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat ere.



Erizainak zain-bide bat jarriko dizu besoan, behar izanez gero botikak emateko. Azterketaren iraupena aldakorra da, gutxi gorabehera, 30-60 minutu bitartekoa.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Itxarongelan egongo zara ondo egon arte.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.